



# ONLINE IKASTAROA.

## '2030 AGENDA: SEKTOREANITZEKO IKUSPEGIA ETA EKINTZARAKO PROPOSAMENAK'

2021eko martxoaren 8tik 29ra

2015eko irailean, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda onartu zuen Nazio Batuen Erakundeak. Agenda horren xedea da pobreziaarekin amaitzeko, desberdintasunak murrizteko eta planeta kontserbatzeko nazioarteko tresna nagusia izatea.

9 urte besterik ez dira geratzen GIHak betetzeko, baina oraindik ere eztabaidatzen ari dira helburu horien ezarpena, berrikuspena eta jarraipena nola egin behar diren. Erakundeak eta gobernuak, besteak beste, pauso garrantzitsuak ari dira ematen bide horretan, nahiz eta ez den ibilbide-orri bateratu bat ezarri. Esan daiteke, beraz, Agenda bukatu gabe dagoela eta interpretazioak egiteko aukera zabalik uzten duela, eta horrenbestez, baita eraginak sortzeko aukera ere.

Testuinguru horretan, UNESCO Etxeak ikastaro bat antolatu du, **Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren** laguntzarekin, Agendaren ezarpenari buruzko eztabaidan sakontzeko eta hori ezartzeko prozesuan eragina izateko ahalmenak sortu eta tresnak emateko xedez.

### HELBURUAK

- 2030 Agenda hobeto ezagutzen laguntzea.
- Eragin efektiboagoa izateko ahalmenak sortzea, Agenda ezartzea ardatz hartuta.
- Eztabaidagune bat sortzea; pentsamendu kritikoa izaten eta Euskadiko eta Hegoaldeko pertsonen artean iritziak trukatzeko laguntzea, 2030 Agendarekin lotutako tresnak, ezagutzak eta jardunbide egokiak eskuratzeko, sinergiak sortuz eta sare bat eraikitzea ahalbidetuz.

### NORENTZAT

- Ahultasun-egoeran dauden taldeak ordezkatzen dituzten Euskadiko erakundeetako profesionalak eta boluntarioak.
- Agenda gauzatzeko prozesuarekin lotura duten Euskadiko profesionalak eta boluntarioak (gizarte zibila oro har, talde feministak, lankidetzako taldeak, talde ekologistak, administrazio publikoak, akademia, sindikatuak...).
- Agenda gauzatzeko prozesuarekin lotura duten Hegoaldeko herrialdeetako gizarte zibil antolatutako profesionalak eta boluntarioak.

Gehienez 30 pertsonak parte hartu ahal izango dute ikastaroan. Plaza horietatik, gutxienez % 40 hegoaldeko herrialdeetako pertsona eta erakundeentzat izango dira. UNESCO Etxeak parte-hartzaileen alde aurreko hautaketa bat egingo du, hauek kontuan hartuta: genero-irizpideak, jatorria, gizarte zibileko erakunde edo erakunde feministaren bateko kide den, interesa, etab.

## EDUKIAK

Ikastaroak 2030 Agendan eta GIHetan sakontzea izango du ardatz, eta bi bloke tematikotan banatuta egongo da. Lehenengoa sarrera izango da, Agenda ezagutzeko eta interpretatzeko; bigarrenean, berriz, sakonago aztertuko dira Agenda ezartzeko, berrikusteko, horren jarraipena egiteko eta kontu emateko estrategiak eta tresnak, baita tartean diren eragileak martxan jartzen ari diren prozesuak ere.

## **I. BLOKEA:SARRERA**

### **0. MODULUA: 2030 AGENDA ETA GIHak (\*)**

- 2030 Agendaren aurrekariak
- 2030 Agenda eta GIHak

*(\*) 0. modulua sarrera izango da. Ikasle guztiek modulu honen ebaluazio-proba egin beharko dute. Dena den, aurretik gaiari buruzko ezagutzak dituztenek ez dute modulu honetako dokumentazioa nahitaez irakurri behar; ebaluazio-proba egin dezakete zuzenean.*

### **1. MODULUA: 2030 AGENDAREN INTERPRETAZIOAK**

- 2030 Agendaren ahalmenak eta/edo argiguneak
- 2030 Agendaren mugak eta/edo itzalak
- Zeharkako ikuspegiak:
  - GIHen ikuspegi feminista
  - Giza eskubideak eta pertsonak 2030 Agendaren erdigunean
  - Talde ahulenen egoera
  - Ingurumenaren aldagaia

## **II. BLOKEA:2030 AGENDA MARTXAN**

### **2. MODULUA: AGENDA EZARTZEA**

- Berrikuspena, jarraipena eta kontu-ematea
- Adierazleak
- Komunikazioa



### 3. MODULUA: EZARTZEKO PROPOSAMENAK ETA TARTEAN DIREN ERAGILEEK EMANDAKO PAUSOAK

- Ezarpenean inplikaturako eragileak
- Sektore pribatua
- Gizarte zibila
- 2030 Agenda estatu espainiarrean
- 2030 Agenda Euskadin
- Tokiko beste erakunde batzuk

### METODOLOGIA

Modulu bakoitzak baliabide pedagogiko hauek barne hartuko ditu:

- Gidoia, modulu bakoitzaren deskribapen orokorrarekin (*helburuak, edukiak, oinarritzko baliabideak, metodologia, modulua nola ebaluatuko den, zenbat denbora eskaini beharko zaion eta baliabide osagarriak, informazio gehiago nahi izanez gero*)
- Oinarritzko irakurketak
- Webguneetarako estekak
- Dokumentu interesgarriak (*artikuluak eta txostenak*)
- 2030 Agendan adituak diren pertsonekin egindako bideoak, Agendaren hainbat alderdi lantzen dituztenak

Ikastaroaren iraupena 25 eskola-ordukoa izango da (*0. modulua ez da sartzen ordu horietan, baina ebaluazioa bai*).

Moduluen eskola-karga 5 eta 7 ordu artekoa izango da, baina aldatu egingo da modulu batzuetatik besteetara.

Ikastaroa zabalik egongo da 2021eko **martxoren 8tik(10:00) martxoaren 29ra (10:00)**.

**Ikastaroa gaztelaniaz izango da.**

Prestakuntza gainditzeko eta egiaztagiria jasotzeko, ikasleek hauek egin beharko dituzte:

- Foroan parte hartu
- Ebaluazio-probak gainditu
- Proposatutako ariketak egin

Irakasleek prozesu osoan zehar lagunduko diete parte-hartzaileei, eta ikastaroarekin lotutako edozein zalantza galdetu ahal izango zaie.

Ikastaroa amaitutakoan, egiaztagiria emango zaie ikastaroa gainditu duten guztiei.



## PREZIOA

Doakoa da.

**Libre dauden plaza guztiak aprobetxatzeko asmoz eta parte-hartzaileek ikastaroa justifikatu gabe bertan behera uztea ekiditeko, mesedez, kontuan izan plazak mugatuak direla eta onartu ondoren ikastaroa ez egiteak beste pertsona bati plaza hori kentzea esan nahi du.**

## EZAUGARRI OROKORRAK

- **Plaza kopurua:** 30
- **Hizkuntza:** **Gaztelania**
- **Modalitatea:** Online (*moodle plataforma*)
- **Maila:** Aurreratua
- **Kostua:** Doakoa
- **Iraupena:** 2021eko martxoaren 8tik 20ra  
(*guztira 25 ordu eskaini beharko zaizkiola kalkulatzen da*)
- **Aurretiko izen-ematea:** Martxoaren 1era arte
- **Izena emateko formularioa:** <https://forms.gle/uiZUSduVcutPiKoW7>
- **Informazio gehiago:** [r.iniguez@unescoetxea.org](mailto:r.iniguez@unescoetxea.org)

Antolatzailea:

Babeslea: